

Musika Bulegoa Sariak 2024

Maiatzak 15 Mayo

IRUÑEA

Sala Zentral Aretoa

DEIALDIAREN
OINARRIAK
BASES
CONVOCATORIA



Antolatzailea
Organiza



Babeste nagusia
Patrocinador principal



Erakunde babesleak
Patrocinios institucionales



Colabora
Laguntzailea



Aurkibidea

1. Musika Bulegoa Sariak	3
2. Nor aurkez daiteke?	4
3. Etxepare Euskal Institutuaren Musika Sariaren esparrua	6
4. EHMBE ohorezko saria	6
5. Publikoaren saria	7
6. Hautagaitzak aurkezteko epea	8
7. Antolatzailearen eskubideak eta betebeharrak	9

Índice

1. Los premios Musika Bulegoa	3
2. ¿Quién puede presentarse?	4
3. Premio Instituto Vasco Etxepare de música	6
4. Premio de honor EHMBE	6
5. Premio del público	7
6. Inscripción de candidaturas	8
7. Derechos y obligaciones de la organización	9

1. Musika Bulegoa Sariak

Musika Bulegoa Sarien –MBS2024– zortzigarren edizioak honako sari hauek aurreikusten ditu:

- **8 sari musika-lanentzat.**
- **Etxepare Euskal Institutuaren Musika Saria.**
- **Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte (EHMBE) Ohorezko Saria.**
- **Publikoaren Saria**

Musika lanentzako 8 sariak 2.000 euroko dirusaria eta Fernando Mikelarena “Baserri” eskultoreak diseinatutako eskultura bat izango dituzte.

EHMBE Ohorezko Sariak eta Publikoaren Sariak ez dute diru-hornidurarik izango.

1. Los premios Musika Bulegoa

En la octava edición de Musika Bulegoa Sariak –MBS 2024– se otorgarán los siguientes premios:

- **8 Premios a trabajos musicales.**
- **Premio Instituto Vasco Etxepare de Música.**
- **Premio de Honor Euskal Herriko Musika Bulego Elkarte (EHMBE)**
- **Premio del público**

Los 8 premios a trabajos musicales y el premio Instituto Vasco Etxepare de Música contarán con una dotación en metálico de 2.000€ y un galardón diseñado por el escultor Fernando Mikelarena “Baserri”.

El Premio de Honor EHMBE y el Premio del Público no tendrán dotación económica.

2. Nor aurkez daiteke?

Euskal Herriko (1) sortzaile, interprete edo musikagileak —bakarlariak nahiz taldeak—, baldin eta euren lana jendaurrean (2) aurkeztu baidute 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31rako epealdian.

Musika Bulegoko bazkideek, gehienez, **3 proposamen** aurkezteko aukera izango dute.

EHMBE-ko bazkideak ez direnak eta beren jarduera profesionala Euskal Herriko musika-sektorearen barnean garatzen duten eragileek **proposamen 1** aurkeztu ahal izango dute.

(1) Oharra: Euskal Herrian jaioak edo bertan bizi direnak.

(2) Jendaurrean aurkeztua izan dela ulertzen da, edozein medio erabiliz zein edozein formatutan egindako musika lanaren zabalkundea, beti ere, publikoarengana iritsi den edo iritsi ahal izan denean. Mugatua geratzen ez den arren, ondorengoak sartzen dira horren barruan: zuzenean edo euskarri digitalen bidez interpretatzea, jendearen eskura jartzea plataforma digitaletan edo webguneetan, doan edo ordainduta, espazio publiko edo pribatuetan, irrati-hedabideetan, podcast-etan, telebistan edo antzeko baliabideetan erreproduzitzea, kopiak edozein formatutan banatzea, fisikoa edo digitala, edo argitaratu den edozein lan grafikotan edo ikus-entzunezkotan sartzea.

Deialdi honetan musika-lanak onartzeko data zabalkunde-data izango da. Ez da onartuko, inola ere, lege gordailua eskatu edo lortu den eguna, ezta ere beste edonolako erregistro datarik: Jabetza Intelektualaren edo eta eskubideak kudeatzen dituzten erakundeetan egindako erregistro data.

2. ¿Quién puede presentarse?

Cualquier creador/a, intérprete, compositor/a, ya sean solistas y/o agrupaciones musicales de Euskal Herria (1) cuyos trabajos hayan sido presentados públicamente (2) durante el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2023 y el 31 de diciembre de 2023.

Podrán presentar un máximo de **3 propuestas** los y las socios de Musika Bulegoa.

Podrán presentar **1 propuesta** los agentes que desarrollen su actividad profesional dentro del sector musical de Euskal Herria y no estén asociados a EHMBE.

(1) Nota: Nacidos o residentes.

(2) Nota: Se entiende como presentación pública la divulgación del trabajo musical hecha por cualquier medio y en cualquier formato de manera que haya llegado o podido llegar al público. Esto incluye, pero no queda limitado, su interpretación en vivo o a través de medios digitales, la puesta a disposición del público en plataformas digitales o sitios web, sean de acceso gratuito o mediante pago, su reproducción en espacios públicos, medios radiofónicos, podcast, televisión o medios análogos, la distribución de copias en cualquier formato, físico o digital, o su inclusión en cualquier obra gráfica o audiovisual que haya sido publicada.

La fecha a los efectos de admitir los trabajos musicales en esta convocatoria será la de divulgación, y en ningún caso aquella en la que se haya solicitado o se haya obtenido el depósito legal o aquella en la que se haya registrado el trabajo en una entidad de gestión, en el Registro de la Propiedad Intelectual o en un registro de otro carácter.

MUSIKA-LANEN TIPOLOGIA ETA IZAERA

- Idatzitako musika-lan bat.
- Disko oso bat.
- Musika-konposizio bat.
- Soinu-banda bat.
- Zuzeneko lanak: soinu-instalazioak, kontzertu zehatzetarako berriaz diseinatutako musika-produkzioak, estreinaldiak eta abar.

Aurkeztu ahal izango dira:

- Euskal egileek konposatutako lanak, baita kanpoko ekoizleek edo artistek aurkeztu / interpretatu badituzte ere.
- Euskal Herriko nahiz kanpoko taldeek egindako aurkezpenak / interpretazioak, beste euskal egile batzuek (bizirik nahiz hilda daudenek) egindako edukietan oinarrituta.
- Euskal Herriko musikariek kanpoko sortzaileen lanen inguruan egindako interpretazioak.

Musika-jarduerarekin zerikusia duten arloetako profesionalek osatutako epaimahai batek emango ditu 8 musika-lanen sariak, eta EHM-BEko Zuzendaritza Batzordeak aukeratuko du.

TIPOLOGÍA Y CARÁCTER DE LOS TRABAJOS MUSICALES

- Obra musical escrita.
- Disco completo.
- Tema musical.
- Banda sonora.
- Obras en directo: Instalaciones sonoras, producciones musicales diseñadas especialmente para conciertos específicos, un estreno, etc.

Podrán presentarse:

- Obras compuestas por autores/as vascos, aunque la presentación/ interpretación haya sido realizada por productores/as o artistas foráneos/as.
- Presentaciones / interpretaciones de formaciones vascas o foráneas cuyos contenidos correspondan a otros autores/as vascos de cualquier ámbito, vivos o no.
- Interpretaciones de músicos vascos de trabajos de creadores/as foráneos/as.

Los premios a los 8 trabajos musicales los otorgará un jurado compuesto por profesionales de ámbitos relacionados con la actividad musical y que elegirá la Junta Directiva de EHMBE.

3. Etxepare Euskal Institutuaren Musika Sariaren esparrua

Sari honekin, euskal interprete bakarlari, talde edo konpositore batek 2023an euskal musika nazioartekotzen egindako lana saritu nahi da. Sari honetarako, era guztietako musika estilo eta korrontetan, euskaraz aritzen diren talde edo bakarlariak hartuko dira kontuan.

Etxepare Euskal Institutuak musika eta kultura arloko profesionalek osatutako epaimahai bat izendatuko du.

4. EHMBE ohorezko saria

EHMBE k (Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak) Euskal Herriko musika-jarduerarekin lotutako pertsona edo erakunde bat sarituko du, ondorengo esparruren batean proiektu nabarmen bat garatzeagatik: formakuntzan, sentsibilizazioan, hedapenean, ekoizpenean.

EHMBE Sari Berezirako proposamenak EHMBEren Zuzendaritza Batzordeak egingo ditu.

3. Premio Instituto Vasco Etxepare de música

Con este premio se pretende reconocer la labor de un/a intérprete solista, grupo o compositor/a vasco/a en la internacionalización de la música vasca en 2023. Para este premio se tendrá en cuenta a grupos o solistas que actúen en euskera, en todo tipo de estilos y corrientes musicales.

El Instituto Vasco Etxepare nombrará un jurado compuesto por profesionales del ámbito musical y cultural.

4. Premio de honor EHMBE

La asociación EHMBE (Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak) concederá este premio a una persona o entidad relacionada con la actividad musical de Euskal Herria por el desarrollo de un proyecto destacable en ámbitos tales como: formación, sensibilización, difusión, producción.

Las propuestas para el premio especial EHMBE serán realizadas por la Junta Directiva.

5. Publikoaren saria

Edizio berri honetan Publikoaren Saria sortu da. Bertan, musikazaleek euren talde eta/edo artista gogokoena bozkatzeko eta aukeratzeko aukera izango dute.

Publikoak online emango du botoa, www.musikabulegoa.eus webgunearen eta gure sare sozialen bidez. Horretarako, erabiltzaileak aldez aurretik erregistratu beharko du. Publikoaren bozketa-fasea epaimahai profesionala kanporatze fasearen ondoren hasiko da.

Botoa ematen duten pertsona guztien artean lau sarrera zozkatuko dira sari banaketarako eta maiatzaren 15ean Iruñeko Zentral aretoan egingo den kontzerturako. Antolatzailea irabazlearekin harremanetan jarriko da bozketa prozesuan emandako posta elektronikoen bidez.

5. Premio del público

En esta nueva edición se ha creado el Premio del Público. De esta manera, las personas aficionadas a la música podrán votar y elegir a su grupo y/o artista favorito.

El público votará online a través de la web www.musikabulegoa.eus y de nuestras redes sociales. Para ello, deberán registrarse previamente. La fase de votación del público comenzará tras la primera fase del jurado profesional.

Entre todas las personas que voten se sortearán cuatro entradas para la entrega de premios que tendrá lugar el 15 de mayo en la sala Zentral de Pamplona. La organización se pondrá en contacto con la persona ganadora a través del correo electrónico facilitado durante el proceso de votación.

6. Hautagaitzak aurkezteko epea

Hautagaitzak online aurkeztuko dira [formulario](#) honen bitartez, oinarriak argitaratzen diren egunetik 2024ko otsailaren 2ra arte. Data horretatik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Proposamen bakoitzarekin batera, erreferentzia digital bakarra bidali behar da. Musika eta/edo ikus-entzunezkoak kalitate egokia izan behar du, epaimahaiak balorazio- eta hausnartze prozesurako erabili ahal ditzan.

Proposamenen berrikustea: Aurkezteko epea amaitu ondoren, baldintzak betetzen direla egiaztatuko da eta, hala badagokio, Behar diren datuak aurkezteko eskatuko zaio proposatzaileari 3 eguneko epea emanaz jakinarazpen egunetik zenbatzen hasita.

Baztertutako proposamenak: Kanpoan geratuko dira oinarri hauetan ezarritakoa betetzen ez duten proposamenak eta/edo hirugarren batekin betebeharrak dituztenak, baldin eta obra horren komunikazio publikoa eragozten badute, lehiaketaren garapenean zehar.

6. Inscripción de candidaturas

Las candidaturas se presentarán online a través del siguiente [formulario](#) a partir de la fecha de publicación de las bases y hasta el 2 de febrero de 2024. No se admitirán propuestas a partir de esta fecha.

Cada propuesta deberá estar acompañada de una única referencia digital con la suficiente calidad musical y/o audiovisual que deberá de servir al jurado para el proceso de valoración y deliberación.

Revisión de propuestas: Una vez finalizado el plazo de presentación, se comprobará el cumplimiento de los requisitos y en su caso se solicitará la aportación de datos necesarios en un plazo máximo de 3 días desde el momento de la notificación.

Propuestas excluidas: Quedarán excluidas las propuestas que no cumplan con lo establecido en las presentes bases y/o que tengan contraídas obligaciones con terceros, que impidan la comunicación pública de dicha obra, durante el desarrollo del certamen.

7. Antolatzailearen eskubideak eta betebeharrak

Oinarrien betetzea eta gainbegiratzea:

EHMBE-ko Zuzendaritza Batzordeak uneoro zainduko du oinarri hauek betetzen direla eta lehiaketa gardentasun osoz garatzen dela.

Sustapen-edukiak:

Saridunek ikus-entzunezko edukiak eta irudiak helarazi eta baimenduko dizkiote Euskal Herriko Musika Bulegoari, sustapen- helburuetarako soilik.

Datu okerrak:

Antolatzaileak ez du inolako erantzunkizunik izango proposatzaileak helarazitako datuak okerrak izango balira, edo/eta hutsen bat egongo balitz.

Oinarrien aldaketa:

Puntualki, oinarri hauek aldatuak izan daitezke, horrela izatekotan www.musikabulegoa.eus webgunearen bitartez jakinaraziko litzateke.

Konfidentziasuna:

Musika Bulegoak proposamenak egindako pertsona, erakunde, artista eta lanen konfidentziasuna bermatuko du (Saritutako artistak eta lanak bakarrik argitaratuko dira Lehiaketan).

7. Derechos y obligaciones de la organización

Cumplimiento y supervisión:

La Junta Directiva de EHMBE velará por el cumplimiento de las presentes bases y por garantizar la transparencia del Certamen.

Contenidos promocionales:

Los/las participantes que resulten premiados/as facilitarán y autorizarán a EHMBE contenidos audiovisuales e imágenes, con finalidad exclusivamente promocional.

Datos erróneos:

La organización no se hará responsable de los errores u omisiones que pudieran contener los datos publicados facilitados por las entidades o personas proponentes.

Modificaciones en las Bases:

Las presentes bases pueden estar sujetas a modificación, en cuyo caso se informará oportunamente a través de la web www.musikabulegoa.eus

Confidencialidad:

Musika Bulegoa garantizará la confidencialidad tanto de las personas o entidades proponentes como de los/las artistas y trabajos propuestos. (El Certamen hará públicos tan sólo los/las artistas y trabajos premiados).

Sariak emateko ekitaldia maiatzaren 15ean burutuko da Iruñeko Zentral Aretoan.


MUSIKA BULEGOA

Errenteria, 2023ko abenduaren 20an

El acto de entrega de premios tendrá lugar el 15 de mayo en la Sala Zentral de Pamplona.

MUSIKA BULEGOA

Rentería, a 20 de diciembre de 2023



musika
bulegoa

euskal herriko musika
bulego elkarte